

BAT, BI, HIRU, TXIRULIRU!

Testua eta irudiak: **NADIA BUDDE**

Egokitzapena: **XABIER OLASO**

Kartoi gogorreko orriak 22 X17,5 cm 18 or. 10 €.

ALEMANIAKO HAUR ETA GAZTE LITERATURA SARIA (2000)
ONDENBURGEKO HAUR ETA GAZTE LITERATURA SARIA (2000)

Bat, bi, hiru, txiruliru! (euskara)

ISBN 978-84-9172-048-5. Kartoiak orriak.

Uno, dos, tres, ¿qué ves? (gaztelania)

ISBN 978-84-8464-390-6. Acartonados. Prelectores.

Un, dous, tres, que ves? (galegoa)

ISBN 978-84-8464-391-3. Acartonados. Prelectores.

Un, dos, tres, qui és? (katalana)

ISBN 978-84-16804-51-1. Cartró. Pre-lectors.

Bat, bi, hiru, txiruliru!

Patxiku, Leontzio, Pantxo, otsoa

handia, ertaina, txikitxo, txeritxo...

Testuaren eta ilustrazioen uztarketak egiten

du "Bat, bi, hiru, txiruliru!" liburuaren lehen irakurleen kutunetarikoa.

Egoera, jokaera eta itxura ezberdinetan orri orri ageri diren pertsonaiek bide ematen diete lehenengo irakurleei irudiak eta hitzak antzematen ikas dezaten.

Errima, erritmoa eta musikaltasuna bertan da, hasi eta buka, azalekoak eta kontra-azalekoak ere barne direla.

Jolas fonetikoaz gain, nabarmen da, bestalde, erraz-erraz antzematen den egitura kateatua; hitz-multzo bakoitzak pertsonaia berri bat dakar bukaera eta azken honek hasiera emango dio hurrengo atalari, eta horrela behin eta berriro.

Otsoak eta txeritxoak, saguak eta untziak, katuak eta txakurrak, hontzak eta hartzak dira lagun-talde dibertigarri eta katamilatsu honetako hitzordura gonbidaturiko animalietako batzuk. Nola ukitu jostagarriak, hala humorea eta trazu lodiko pintzelkada koloretsuez egindako irudiak dira inondik ere liburuaren erakargarri.

Borobilduriko bazterrez eta kartoi gogorrez osaturiko formatuak zera du helburu nagusi, haurrek liburuarekin harreman estua egin dezaten, erabilgarria izan dadin, orrietan aurrera erraz egin dezaten, eta, finean, honako liburuaren bestelako objektu edo jostailua bailitzan erabil dezaten. "Bat, bi, hiru, txiruliru!" lehen irakurleen ikaskuntza bultzatzeko eta sustatzeko proposamen eragingarria da; baita komunikatzeko eta psikomotritzitatearekin harremanetan dauden gaitasunak garatzeko ere.



■ **Gala:** pertsonaien deskribapena.

■ **Gomendatutako adina:** 3 urtetik aurrera.

■ **Alderdi azpimarragarriak:** egitura kateatua, testu errimatua, erritmoa, musikaltasuna, jolas fonetikoa; animaliak; hiztegia; sormena.

■ **Liburuaren lagina:**

<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/bat-bi-hiru-eusk>

Nadia Budde

(Berlin, 1967)

Berlingo Arte Grafikoen Eskolan eta Londresko Arte Errege-Akademian bere burua formatzen hasi baino lehenago ere publizitate arloan aritzen zen. "Bat, bi, hiru, txiruliru!" bere estreinako album ilustratua izan zen, eta hainbat errekonozimendu aitortu zaizkio lan horri esker. Alemanian bertan ere Linx eta Troisdorf sariak jaso ditu, besteak beste. Bere obrak herrialde askotan itzuli eta argitaratu dituzte.

<http://www.nadiabudde.de>



www. **kalandraka** .com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela** .com
etxea

soltxate@pamiela.com